



Indesa 2010 sozietateak 6,6 milioi euroko lanak egingo ditu GOFerentzat garbiketa, ikuzketa, catering eta lorezaintza zerbitzuetan

Adineko eta desgaitasuna duten pertsonentzako foru zentroetan egingo ditu lanak; besteak beste, egoitzetako menuen nutrizio kudeaketa hobetzea

Gasteiz, 2019ko abenduaren 26a. Indesa 2010 enplegu zentro bereziak, datorren urtean, garbiketa, ikuzketa, catering eta lorategien mantentze lanak egingo ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza eta zentroetarako. Lan horiek 6,6 milioi euroko balioa izango dute.

Indesa 2010en kapitala publikoa da eta gehiena Arabako Foru Aldundiaren eta lurraldeko zenbait tokiko erakunderen esku dago, besteak beste, Arabako Batzar Nagusien edota Gasteizko, Laudio, Oiongo, Aiarako edota Arratzua-Ubarrundiako eta Burgeluko udalen esku, bai eta Eusko Jaurlaritzaren esku ere. Zentro horren betekizuna da kalitatezko lan aukerak eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik jasangarriak direnak sortzea Arabako desgaituentzat, haiek laneratzea eta gizareratzea lortzeko bide gisa, eta 800 langiletik gora ditu, zeinen artean hamarretik bederatzik era bateko edo besteko desgaitasuna baitu.

Enplegurako zentro berezi horrek, 2020an, hainbat lan egingo ditu GOFeren adineko pertsonentzako baliabideetan, hala nola egoitzetan eta eguneko zentroetan, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza ekipamenduetan eta zentro okupazionaletan, eta hainbat foru zerbitzutan, besteak beste, garapen nahasmenduak dituzten haurrentzako Arreta Goiztiarreko Zentroan edo genero indarkerian espezializatutako arreta soziojuridiko eta psikosozialerako Hegoak Zerbitzuan.

Halaber, Indesa arduratuko da menuen nutrizio kontrola eta kudeaketa hobetzeko jardunak egiteaz Laudio, Amurrio, Oion, Samaniego eta Aguraingo adinekoentzako egoitzetan eta Ajuria eta Txagorritxu egoitza zentroetan.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

Horrez gain, GOFEk erabiltzaileei erabil ditzaten lagatzen dizkien laguntza teknikoak kudeatzeaz ere arduratuko da, hala nola ohe artikulatuak, gurpil aulkiak, garabiak eta desgaitasunak dituzten pertsonen mugikortasuna errazten duten beste elementu batzuk.